

Iñaki Martínez de Luna

Euskalgintzari eta gizarte mugimenduei

K

oldok bere buruaz beste egin du. *Lege zaharreko* militantea zen: sindikalista, abertzalea, herri mugimenduetako kide aktiboa (izena asmatua da, gertaera, zoritxarrez, ez). Erabaki tragiko horren arrazoiak? Militantzia-ildotik jarraituko duen ondorengorik ezak eta bizitzaren ipartzat zituen idealek gizartean pisua galtzeak eragin zizkieten porrot sentazioa eta frustrazioa. Beste hainbat militante ohi ere, Koldo bezala, *erreta* daude, horren erabaki tragikoa hartzera ez iritsi arren.

Gogorarazi behar dugu, garai batean gizarte mugimenduek jarraitzaile andana zutela, baina gaur egun ez. Garai horietan, alderdi politikoek ere areto handiak erraz betetzen zituzten eta gaur egun, betetzekotan, nekez.

Zer dela-eta? Akabo idealak? Mundu hobe bat aldarrikatzen duten baloreak galtzen ari dira? Akaso, indibidualismo berekoiak irentsi du gure gizartea? Ez dut uste horren irakurketa ezkorrik egin behar denik. Hor dihardute, adibidez, Gobernu Kanpoko Erakundeek, gazte zintzo eta eskuzabal batzuen lekuko. Halaber, ekologia edo genero berdintasuna bezalako kezak inoiz baino hedatuago daude gurean.

Kontua da, trantsizio politikoaren garaian *Euskadik behar zaitu!* bezalako leloak nagusitzen zirela, herri edo klase-interesak pertsonen aurretik zeuden; alegia, ikuspegi kolektiboa lehenesten zuten balioak nagusitzen zirela. Amestutako *paradisua* kolektiboa zen (komunismoa, Euskadi askatua...). XXI. mendean gauzek aldatu dute. Adibidez, duela aste pare bat poeta euskaldun gazte batek –irratian egindako elkarrizketan– *pertsona* jartzen zuen bere lehentasunen erpinean, bestelako ardura kolektibo eta sozialen aurretik. Balio kolektiboetatik igaro da pertsonarengan eraikitako balioetara; modernitateko balioetatik post-modernitateko balioetara. Oraingo *paradisua* norbanakoarena da. Balioen paradigma aldatu da!

Hortaz, XX. mendeko euskal gizartea eta gaurkoa ezberdinak dira eta jendea orain masiboki ez mobilizatzearen arrazoa horretan datza. Jendea mugiarazten zuten ideologiek, duela berrogei urte, herri, klase edo gizatalde batzuentzako



ALEX LARRETXI

bizimodu hobe eta zoriontsuagoa lortzea zuten helburu. Gaur egun, jendea mugiarazten duenak helburu bera du, baina beste bide ezberdin bat urratuz: garapen pertsonalarena. Pertsonaren zoriontasuna, inolako talderen bitartekaritzarik gabe.

Adibide bat: 2008ko EHUko uda ikastaroetan jendez gainezka egon diren ikastarorak *Aprender a identificar y manejar las emociones en la vida cotidiana* eta *Optimismo para una vida mejor* izan dira. Hori pentsaezina zen duela hamarkada batzuk, entzuleriaren arreta erakartzen zuten ideiak talde-ideologiak zirenean: Marx, Sabino Arana...

Balioen paradigma aldatu denez, *gizarte-gintzan* lan egiten duen orok eraginkorra izaten jarraituko badu, planteamendu berriei ekin beharko die; ez joan zen mendeak errepikatzeari.

Egoera berri horri darraion arazoa, honakoa da: pertsonarengan eraikitako balio-sistema berrian nola txertatu herri,

Jendea mugiarazten zuten ideologiek, duela berrogei urte, herri, klase edo gizatalde batzuentzako bizimodu hobe eta zoriontsuagoa lortzea zuten helburu. Gaur egun, jendea mugiarazten duenak helburu bera du, baina beste bide ezberdin bat urratuz: garapen pertsonalarena. Pertsonaren zoriontasuna, inolako talderen bitartekaritzarik gabe

klase edo gizatalde baten oinarritutako aldarrikapena? Inon irakurri dudana (non? nori?) euskalgintzako adibide bat emango dut: euskararen aldeko aldarrikapena orain arte Euskal Herriaren izenean egin bada, gaur egun hizkuntza horrek gizabanakoari ekar diezaiokeen onuran ere oinarritu beharko da, aldarrikapena helburu kolektiboetatik, indibidualetara ere zabalduz. Euskalgintza izan edo beste gizarte mugimendua izan, estrategiak balioen paradigma berrira egokitu ezean, baliteke Koldorena kasu bakarra ez izatea. ■